



## Angel Justel zapataria

Sasoetan zabaldu zuen lantegiak mende laurden bete du aurten. Erretiratzeko garaia heldu bazaio ere, bizpahiru urtez jarraituko du / 8-9

TXINTXARRI

## Bakailaoaren ibilbidea herrian

Arkupe, Avenida, Escalerilla, Jalgi eta Tiburtzio Artizar tabernek pintxo bana aurkeztu dute, arrain mota hori oinarri hartuta / 6

**Teresategi eremuan lan egiteko, 56 behargin lasarteoriatar kontratatzea hitzartu dute / 2**

**Hiri hondakinak kudeatzeko proposamena baloratu du Aire Garbia plataformak / 3**

**Urte eta erdi elkartu ezinik igaro ostean, ikasturte berriari elkarrekin eta abestuz ekin dio Xumelak / 4**

**Miguel Angel Oribe herritarrak zinemari buruzko istorioen gaineko erakusketa du Donostian / 7**

**Emaitzatik haratago, gogoz hasi du Ostadar Saskibaloia ataleko Kadete Errendimendu taldeak denboraldia / 10**

**Ostadar SKTKo Emakumezkoen Erregional Ohorezko taldeak banako berdinketa lortu du / 11**



**ELECTRICIDAD**  
**ARREGUI**

www.electricidadarregui.com  
tienda.electricidadarregui.com  
(on-line denda)

## Piztu ikasturte berriko argia!

Aukera zabala ikasketa mahairako argietan

**Bulego-lanparak**  
LED argi erregulatzailerekin



**Sabai-lanparak**  
haur, gazte eta helduentzat



Eskatu  
whatsapp bidez!  
**600 85 75 86**





# Teresategi eremuan enplegua sustatzeko

Hitzarmena sinatu dute Lasarte-Oriako Udalak eta Construcciones Iturrioz enpresak Teresategi eremuan lan egiteko; gutxienez, 50 lasarteoriatar kontratatzea adostu dute, hamar urteko epean. Beharginen lanaldiak "iraunkorrak" izatea nahi dute, bost urtekoak

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak eta Construcciones Iturrioz enpresak lankidetzak akordioa sinatu dute, Teresategi eremuan enplegua sustatzeko -Leroy Merlin merkatalgunea eraikitzea aurreikusten dute han-. Partzelan lan egiteko beharginak kontratatzerakoan, gutxienez, 56k Lasarte-Orian errolatuak izan beharko dute, bi aldeek izenpetu duten hitzarmenean jaso dutenez. Hamar urteko epean egingo dituzte kontratazioak, eta helburua da postu "iraunkorrak" izatea, bost urtekoak. 50 pertsonak izango dituzte baldintza horiek. Beste sei, aldiz, partzelak eraiki eta hornitu bitartean emango die lana Construcciones Iturriozek.

Enpresa promotoreak sinatutakoa ez badu betetzen, 30.000 euro ordainduko dizkio udalari lanpostu bakoitzeko, edo bost urte horietatik bete ez diren lanaldien zati proportzionala. "Ezinbesteko kasuetan izan ezik, edozein arrazoiengatik egin beharko du hori", zehaztu du Agustin Valdivia alkateak. Berak sinatu du lankidetzak hitzarmen hori, udaleko Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandezekin eta Construcciones Iturrioz enpresako ordezkari Xabier Iturriozekin batera.



Xabier Iturrioz promotorea eta Agustin Valdivia alkatea, akordioa sinatu berri. TXINTXARRI

Herriko beharginak kontratatu ostean lan harremana etenez gero, ordezkioa bilatzerako orduan, langabe lasarteoriatarra izatea lehenetsiko du sustatzaileak. Halaber, aipatutako 56 postu horiez gain, Teresategiko lanak egin bitartean sortzen diren gainerako postuetarako langileak aukeratzeko garaian, udalerrian errolatutako pertsonak izango dute lehentasuna. "Beharginak hautatzeko prozesuak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak

egin dugu beti", Fernandezek aditzera eman duenez.

Bitartean, udalak konpromisoa hartu du obrak lizitatzeko beharrezkoak diren "hirigintza dokumentu guztiak" egiteko. Hori prest izatean, batzordera eta udalbatzarrerara eramango ditu txostenak.

Bestalde, alkateak jakinarazi du Michelin II lursailako egitasmoa "laster" jarriko duela martxan berriro udalak. "Harremanetan jarriko gara sustatzailearekin, hitzartutakoa egiten has dadin".

## Eraginkortasun energetikoa hobetzeko, 60.000 euro

Eraikinetako berotze sistemak hobetzeko eta etxebizitzetan galdarak edota leihoak ordezkatzeko diru laguntzak

### Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak diruz lagunduko ditu herriko etxebizitzetako eraginkortasun energetikoa hobetzeko egiten diren lanak; 60.000 euro bideratuko ditu zeregin horretara. Ekarpenean ekonomiko horien onuradunak izango dira jabeen komunitateetako berotze sistemak hobetzen dituztenak eta etxebizitzak partikularretako galdarak edo leihoak ordezkatzeko dituztenak. Lehen kasuan, 6.000 euro jasoko dituzte asko jota; bigarren eta hirugarren kasuetan, aldiz, 400 edo 1.200 euro.

Epeei dagokienez, honako hau zehaztu du udalak: 2020ko ekitaldian amaitu badituzte obrak, eskatzaileek hilabete izango dute deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Moldaketak aurten egin badira, bi aukera: 2021eko urriaren 31 baino lehen amaitu badira, oinarriak argitaratu eta hilabetera eskatu ahal dute diru laguntza; deialdia publikatutakoan oraindik ez badaude gauzatuta, berriz, 2021eko azaroaren 20a (larunbata) baino lehen.

Udalak zehaztu du laguntza eska dezaketela 2000. urteko urtarrilaren 1a baino lehen eraikiak izan ziren etxebizitzetan obrak egin dituztenek, salbu eta familia bakarrekoak edo bikoak badira, isolatuta edo atxikita. Ekarpenean ekonomikoaren oinarriak betetzen dituzten lanak

laguntzeko, baldin eta 2021eko urriaren 31 baino lehen amaitzen bada haien egokitzapena, 40.000 euro bideratuko ditu udalak. 2020an eginak izan direnentzat prestatutako poltsa txikiagoa da, 20.000 eurokoa.

Etxebizitzetako eraginkortasun energetikoa hobetzeko lanak egin dituztenek kontuan izan behar dute ekarpenean ekonomiko horiek ez direla bateragarriak izango Basaundi auzoko laguntzekin, baina bai beste erakunde publiko batzuek ematen dituztenekin, baldin eta jasotzen duten diruak obretan inbertitutako kopurua gaintzen ez badu.

### "Lehentasunezko neurria"

Herriko alkatea izateaz gain, Hirigintza batzordeburua ere bada Agustin Valdivia; hark aurkeztu du laguntza lerroa. Egungo eraikin parkeak energiaren %30 inguru kontsumitzen du". Energia eta Klima Plan Nazional Integratua aipatu du; egitasmo horren xedea da 2030erako 1.200.000 etxebizitzak energetikoki birgaitzea. Halaber, Espainiar Estatuko eraikuntzaren sektorean eragiteko epe luzeko estrategian jaso dute neurria.

Bestalde, adierazi du udalak aurkeztu dituen dirulaguntzak "eskala txikiagoko jarduketak" egiteko dela, baina laguntzen dutela alor hori hobetzen. "Funtsezkoa da etxebizitzak birgaitzeko politika aktiboari eustea, jarduera hori gero eta gehiago sustatzeko".

## Mugikortasun jasangarriagoa lortzeko ahaleginak egin dituzte

Herritarrek aktiboki parte hartu dute Artelatzen eta udalak Mugikortasun Asterako antolatutako jarduera ezberdinetan

### Txintxarri

Lasarteoriatarrek gogotsu aritu dira mugikortasun jasangarriagoaren alde Artelatzen eta udalak elkarlanean antolatu dituzten egitasmoetan. Askotariko gustu

eta adinei zuzendutako egitaraua izan dute.

Hilaren 23an, Kontzeju Txiki plazako makinak erabiltzen ikasi dute nagusiek; kiroldegiko aholkulariaren laguntzaz, gorputzak berotu eta ariketa

fisikoa egin dute; trebetasun handia erakutsi dute. Irailaren 22ko Muittu Manttangorri hiribusaren doako zerbitzua ere aprobetxatu dute askok.

Bizikleta martxa, kale jolasak, Ipar Martxako erakustaldia, eta Bizikleten bigarren eskuko azoka izango dituzte ostiralen, irailaren 24an, eta auto elektrikoaren gaineko informazioa ere gertutik jaso ahal izan dute; Usurbilgo Lanbide Eskolaren auto eta bizikleta elektrikoak jarriko dituzte ikusgai.



Nagusien parkeko makinak erabiltzen ikasi dute zenbait lasarteoriatarrek. TXINTXARRI



# "Askoz anbiziosoagoak izan behar dute epeek"

"Oso berandu" etorri den arren, Aire Garbia plataformak "begi onez" ikusi du hiri hondakinen birziklatze helburuak lortzeko udalak proposatu duen norabidea. Herritarren, auzo elkartearen eta ingurumena lantzen duten eragileen parte hartzea sustatzeko eskatu du

## Txintxarri

Hilabete hasieran aurkeztu zuen udal gobernuak herriko hiri hondakinak kudeatzeko proposamena. Lur azpiko edukiontzia kentzea eta errefusa jasotzeko edukiontzia txartel elektronikoa jartzea (organikoaren modukoa) dira oinarrietako batzuk. Epe zehatzik ez du finkatu oraindik, baina 2022. urtean zehar aldatu nahiko luke sistema. Birziklatze tasei dagokienez, honako helburuak zehaztu ditu: 2025erako zaborraren %55 biltzea gaika, eta %65 hamar urte beranduago, 2035ean (iazko tasa %46,5 izan zen).

Eredu hori aztertu du Aire Garbia plataformak, eta balorazioa egin. "Oso berandu" iritsi dela adierazi du, baina "begi onez" ikusten duela gehitu: "Abiapuntu egokia da". Edonola ere, azpimarratu du lurpeko ontziak mantentzearen edo kentzearen erabakia "teknikoa" zela, eta udalak "aitzakia moduan" erabili izan duela, "sailkako bilketaren portzentaje apalari, benetako erronkari, ez heltzeko".

Eragileari "tamalgaria" iruditzen zaio gai horri lehenago heldu ez izana: "Galdutako egun bakoitzak itzulezinezko kaltea dakar birziklapenaren aldeko borrokan". Hori dela eta, udalak



Hipodromo Etorbideko lurpeko edukiontzia. TXINTXARRI

ezarri nahi duen sistemaren zehaztapena, epeak eta baldintzak finkatzea galdegin du, eta eskakizun batzuk zehaztu: definizio fasean herritarren, auzo elkartearen eta ingurumena jorratzen duten eragileen parte hartzea kontuan izatea; eredu berria ezartzeko epeak ez luzatzea; gaikako bilketa tasak handitzeko epeak "askoz anbiziosoagoak" izatea eta ez "hain luzeak"; birziklatzearen arloan praktika onak eta txarrak bereiztea, eta dagozkien sariak edo zigorrak ezartzea. "Ordenantza fiskalen eztabaidaren epeak

gainean daude, eta erabakia ezin da atzeratu".

## Bidelagun izateko prest

"Une honetan hartuko diren erabakiek erabateko garrantzia dute hondakinen kudeaketa arduratsuen etorkizunari begira", nabarmendu du Aire Garbiak. "Udalaren, eragileen eta herritarren ardura da gauzak ondo egitea, onuradunak denok izango baikara". Plataformak ardura hori eskatu du, eta "erronka" horretan bidelagun izateko prestutasuna eskaini du.

## Koronabirusaren intzidentzia apaltzen ari da Lasarte-Orian

Datu ofizialen arabera, pandemia lehertu zenetik COVID-19ak 2.141 herritar kutsatu ditu

## Txintxarri

Koronabirusaren intzidentzia neurtzeko adierazleak gero eta apalagoak dira Lasarte-Orian. Irailaren 9tik 22ra baieztatu zituzten kasuak 21 izan ziren, eta intzidentzia tasa metatua, 110,27. Astebete lehenago, ia 70 puntu altuagoa zen (178,52). Hilaren 22ra arteko datuak eskuetan, 43 positibo erregistratu dituzte herrian –egun horretako datuak izan dira TXINTXARRI-k kontsultatu ahal izan dituen azkenak, edizioa itxi aurretik–. Hori kontuan izanda, iraila ez da izango intzidentzia gehieneko

hilabetea. Datozen egunetan COVID-19a izugarri oldartu ezean, 2020ko azarotik oso urrun geratuko da (275 kasu). Osakidetzaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren datuen argitan, SARS-CoV-2 birusak 2.141 herritar kutsatu ditu 2020ko martxotik, biztanleen %11 pasatxo (%11,2).

Beterri-Buruntza eskualdeko gainontzeko herrietan ere jaisten ari da koronabirusaren eragina. Astigarraga eta Hernani eremu berdean daude, eta gero eta gertuago Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil.



TXINTXARRI

## Baterajotzerako prest daude

Lasarte-oriako aSunak neska\* gazteon talde feministak parte hartuko du urriaren 8tik 10era Elizondon egingo duten Euskal Herriko Neska\* Gazteek Baterajotzea izeneko topaketan. Hori dela eta, taldeko kideek aurkezpen argazkia egin dute Okendo plazan *Mugimenduan gaudu, lurrikara gara!* zioen pankarta atzean.

## Ttakun Kultur Elkarteak bazkide al zara?



# Zozketa!

**BIZI BARATZEA-ALTZA PORRU** liburua + 3 CD  
(Txapelunk + Ze Esatek + estankona)

Parte hartu nahi baduzu, eman izena **IRAILAREN 26a baino lehen:** [harpidetza@ttakun.eus](mailto:harpidetza@ttakun.eus) helbidean eta 646 82 44 66 (whatsapp)



## TRATAMENDU IRAULTZAILEA!

**BIZI KALITATEA HOBETU ANDULAZIOAREKIN**

**PROBA EZAZU MAKINA!**

- MUSKULU NEKEA gutxitzen du.
- ODOL ZIRKULAZIOA hobetzen du.
- ARTROSI, ZIATIKA eta FIBROMIALGIA tratamendua.
- LOA hobetzen du.
- MIN KRONIKOA arintzeko tratamendua.



**HAMAR SAIOKO BONUAK DITUGU**

INFORMA ZAITEZ:

**Elisabeth** ILE APAINDEGIA | ESTETIKA  
Hipodromo Etorbidea, 10 LASARTE-ORIA 943-36 15 97 | 647 82 13 61





Astelehenero elkartuko dira Xumelako kideak, 19:30etik 20:30era, elkarrekin kantuan eginez, ondo pasatzeko. TXINTXARRI



Josu Txapartegi eta Joxerra San Sebastian musikariak, koruko kideekin. TXINTXARRI

## Urte eta erdi geroago, kantuan ari dira berriro

Xumela koruko kideek ikasturte berriari hasi dute. Astelehenetan elkartuko dira, 19:30etik 20:30era. Elkarrekin kantuan egin eta ondo pasatzea dira taldearen helburu nagusiak. 50 lagunetik gora batu dira Oriarte institutuan egin duten lehen entseguan

### Txintxarri

Hemezortzi hilabete igaro dira Xumelako kideek elkarrekin azkeneko kantuan egin zutenetik. Koronabirusa tarteko, asteroko entseguak bertan behera utzi behar izan zituzten, baina, irail erdialdean eutsi diete, berriz ere, aurrez aurreko saioei.

Hilaren 20an egin dute ikasturteko lehen kantu saioa. Oriarte institutuan elkartu dira, eta ez gutxi gainera. 50 lagunetik gora batu dira, horien artean kide berriren bat edo beste ere bai.

Abesten hasi aurretik, gogoetarako une bat ireki dute.

Joxe Mari Agirretxe Xumelako kideak hartu du hitza. Poza agertu du urte eta erdiren ostean, berriro ere kantuan egiteko elkartu ahal izan direlako.

Gogora ekarri du taldearen helburu nagusia zein den: "Gu, elkarrekin kantuan eginez, une goxo bat konpartitzeko elkartzen gara. Lagunartea sortzea eta ondo pasatzea dira helburu nagusiak".

Kantuan aritzearen aitzakiarekin, hara eta hona bidaiatzeko aukera ere izan dutela kontatu du: "Kataluniara, Galiziarra, Bilbora, Elizondora eta Agurainera joan gara, eta aurten

ere, aukerak sortzen badira baloratuko ditugu".

Taldearen urteurrenarekin ere hitz egin dute. Hamabost urte beteko ditu udazken honetan taldeak, eta hori ospatzeko asmoa agertu dute.

### Musika instrumentuak lagun

Koruko kideek gitarra, aho-soinu, piano zein akordeoi doinuak izan ohi dituzte lagun. Josu Txapartegi Txapas eta Joxerra San Sebastian musikariak arduratuko dira aurten ere koruko kideen ahotsak apaintzeaz, eta guztiek elkarrekin kantu saio ederrak osatuko dituzte.



Doinu ezagunak abestu dituzte: 'Bagare' eta 'Behin betiko', besteak beste. TXINTXARRI

Eta horrelaxe egin dute ikasturteko lehen entseguan ere. Abestu beharreko kanta erabaki, tonua markatu, eta denek elkarrekin ekin diote abesteari.

Doinu ezagunak entzun ahal izan dira: *Behin betiko*, *Behin batean Loiolan*, *Aizkorri maldan* eta *Bagare*, besteak beste.

Kantuan hasi orduko pozik agertu da Txapas, ohartu baita entseatu gabe denbora luze igaro

badute ere, ahotsak "fin" mantendu dituztela.

Konturatzera, ordea, saioa amaitzeko ordua iritsi. Ezin izan dute kantuan ez beste modu batean elkar agurtu. *Epo itai tai* ye kantatuz eta dantzatuz agurtu dira.

Xumela korua Lasarte-Oriako Udalaren eta Ttakun Kultur Elkartearen hitzarmenaren barruan antolatzen den egitasmoa da.

## Intxaurren bat Zabaletan, auzoko hildakoak oroitzeko

Marimototsen amatxo Loretoaren heriotza baliatuta, gaiaz hausnartu dute Zabaletako haur eta gazteek

### Txintxarri

Porrotx eta Marimotots pailazoen *Zorionak Marimotots* ikuskizuna eskaini dute Zabaletako frontoian; Auzoko gaztetxo eta familia ugari gerturatu dira emanaldira, eta heriotzaren

gaia landu dute, une atsegina igaroz; ez dira falta izan irri, dantza eta kantuak. Sudurgorrien *Amaren Intxaurren* azken ikuskizunarekin lotura estua du Zabaletan egin duten emanaldiak, eta duela hiru urte

hil zen Marimototsen ama Loretoaren istorioa du ardatz.

Kontatu diete intxaurren bat landatu zutela Loretoaren omenez, bera agurtzeko, eta, orain, zuhaitz horren fruituak jasotzen eta jaten ari direla, harekin bizitako abenturak kontatu dizkiete frontoian bildutako ikus-entzule gazteei.

Ikuskizuna amaitu baino lehen, intxaurren bat oparitu diete pailazoen auzo elkarteko kideei; auzoko hildakoen omenez landatuko dute.



Intxaurren bat landatuko dute Zabaletan, auzoko hildakoen oroimenez. TXINTXARRI



# Bizitza osorako kartzela zigorraren aurka

Unai Paroten kaleratzea eskatzeko Arrasaten egitekoak ziren martxa bertan behera uzteko erabakiarekin batera, hainbat udalerritan elkarretaratzeak egin ditu Sarek. Herrian 70 bat lagun batu dira larunbatean Elizatze plazako mobilizazioan

## Txintxarri

*Bizitza osorako zigorrak ez! Giza eskubideak, elkarbizitza leloa* zuen pankarta atzean elkartu ziren larunbat goizean zenbait herritar. Ordu laurden batez bertan egon ondoren, Joxe Mari Agirretzek adierazpena egin zuen Sareren izenean.

Ekintzaren testuingurua azaltzen hasi zuen mintzaldia. Araudi arruntaren arabera, gehieneko kartzelaldia 30 urtekoa da, bizi osorako zigorra izan ez dadin. 7/2003 legeak, "espresuki euskal presoentzat egina", ordea, gainditu ezin den kopurua 40 urtera luzatzeko aukera ematen du. Egoera horretan dagoen Unai

Parot eta beste hamabost bat presoren kaleratzea eskatzeko martxa egitekoak ziren irailaren 17an, Arrasaten. Iskanbilak saihesteko, ordea, bertan behera utzi zuen mugimenduak.

Azken hilabeteetan urrunketa politikarekin amaitzeko neurriak hartu dira eta eta presoak Euskal Herriratzen eta hurbiltzen ari direnez, hurrengo pausoa, Agirretzek zehaztu duenez, "euskal presoei legedi arrunta ezartzea da. Bizikidetzarik ez dago hori lortu ezean". Hori horrela, helburu dute zigorraren hiru laurden beteta duten presoak kaleratzea, bi heren dutenei gradu aldaketak aplikatzea eta baimenekin hastea.

Horren aurrean, lortutako zenbait helburuk kontrako jarrerak pizten ari direla salatu du herritarrek. Haiekin lotu ditu ere azken egunotan Espainiako gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen ordezkari Denis Itxasok eta Eusko Jaurlaritzak egindako adierazpenak.

Testuinguru horretan kalean egotea inoiz baino garrantzitsuagoa dela uste du mugimenduak, presoen gaia "lehen lerroan" egoteko, aldarrikapenak azaldu eta presioa egiteko. Hala, urriaren 23an manifestazio nazionala aurrera eramango du Donostian.

# Emakume migranteak, zaintza lanak eta prekarietatea, ardatz

Zaintza lanak egiten dituzten emakume migranteen egoeraz hausnartzeko bi jarduera antolatu dituzte herrian

## Txintxarri

Zaintza lanak egiten dituzten emakume migranteek bizi duten egoera erdigunean jarri eta horren inguruan hausnartzeko, *Mira* instalazio artistikoa bisitatzeko aukera izango dute lasarteoriatarrek. Olatukoop mugimenduaren Kooperatibak Denontzat proiektuak prestatu du, eta berak ekarriko du Okendo plazara. Irailaren 27tik urriaren 9ra arte izango da bertaratzeko aukera, 24 orduz.

Etxe bateko atea zeharkatuko dute bisitariak, eta audio batean, zaintza lanak egiten dituzte emakume migranteen testigantzak entzungo dituzte.

Egitasmoaren bitartez salatu nahi dute zaintza lanetan ari diren emakume migranteek bizi duten egoera "prekarioa". Horrela azaldu du Kooperatibak Denontzat proiektuaren koordinatzaile

Maialen Mangas-ek: "Zainketa krisiak, atzerritartasun lege injustuak, merkatu informalearen iluntasunak eta esplotazioan oinarritutako lan esperientziak emakume horien egunerokoan eragin zuzena dute, prekarioak diren egoerak bizi araziz eta justizia sozialaren ikuspegitik kezagarriak diren panoramak eraginez".

Hain zuzen ere, kooperatibismoak egoera horiek iraultzeko eta eraldatzeko tresnak ba ote dituen argitzeko antolatu dituzte hainbat jarduera; instalakuntza artistikoa ez baita egingo duten jarduera bakarria izango. Urriaren 9an *Etxe barrutik argitara* dokumentala aurkeztuko dute, eta ondoren solasaldia egingo dute. Lasarte-Oriako mugimendu feministak bertan parte hartuko duela iragarri du Mangasek.

*Izena eman Lasarte-Orian!*

# 2021-2022 ikasturtea



**Akademia**

**zitek zientzia eskola**

- ZIENTZIAK • HIZKUNTZAK
- BANAKAKO ZEIN TALDEKAKO KLASEAK
- AURREZ AURREKO SAIOAK EDO ONLINE

ZUK AUKERATU!!

**Tel: 943-36 31 06**

Goikale 12, behea LASARTE-ORIA

[www.zitek-akademia.com](http://www.zitek-akademia.com) • [info@zitek-akademia.com](mailto:info@zitek-akademia.com)



**Euskaltegia**

eman izena!

**aek**  
euskara praktikoa

**A1, A2, B1, B2, C1 eta C2**  
• AURREZ AURRE eta  
AUTOIKASKUNTZA bidez.  
• MINTZA-TALDEAK:  
Astean 2 egunez.  
Muntteri AEK euskaltegia  
Geltoki kalea 17, behea, 20160 Lasarte-Oria  
• 607 62 52 33 • [lasarte@aek.eus](mailto:lasarte@aek.eus)  
[www.muntteri.blogspot.com](http://www.muntteri.blogspot.com)



**Dantza**

**Plaza dantza**

Lehen saioa: asteartea, urriak 5,  
20:00etan.

Tokia: Sasoeta-Zumaburu ikastetxea  
(Sasoeta eraikineko gimnasioan)

Informazioa:

[kultura@ttakun.eus](mailto:kultura@ttakun.eus)

943-37 14 48 • 695 78 53 89



TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:

943-37 14 48 (106) / 646 82 44 66 | [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)



# Lasarte-Oriako bost taberna batu dira bakailao pintxoan ibilbidera

Arkupe, Avenida, Escalerilla, Jalgi eta Tiburtzio Artizar. Bost taberna horiek dira Bakailaoaren I. Ibilbideko geltokietako batzuk. Arrain mota hori oinarri duen pintxo bana prestatu dute, bakoitzak bere erara, baina osagai komun batekin, maitasunarekin. Lasarteoriatarrek urriaren 3ra arte (igandea) dastatu ahalko dituzte mokaduak

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Irailaren 21a da, asteartea. Arratsaldeko lauak. Kazetaria bazkaldu berritan joan da Jalgi kafe antzokira, eta eskerrak, Bakailaoaren I. Ibilbidean parte hartuko duten bost tabernen pintxoak (plater eta guzti, agian) jango lituzkeelako bestela, apurrik utzi gabe, argazkiak ateratzen hasi baino lehen. Bakoitzak bere erara, baina maitasunarekin guztiak, arrain mota hori oinarri duen mokadu bana prestatu dute. Arkupe, Avenida, Escalerilla, Jalgi eta Tiburtzio Artizar animatu dira jarduera gastronomiko horretan parte hartzera, Gipuzkoako beste hamar hiri eta herritako ostalaritza establezimendu ugariarekin batera. Gildaren eta Pintxoaren Kofradiak antolatuta du ekimena.

Apunta ditzatela herritarrek bost taberna horien izenak, eta eska ditzatela pintxo berezi horiek. Ez dira galduko ibilbidea egin bitartean, guztiak baitaude erdigunean, Largoeneatik hasi eta Hipodromo Etorbideraino. Tabernariak TXINTXARRI-ri kontatu



Tiburtzio Artizar (atzealdean ikusten da ataria) taberna aukeratu dute ostalariek ibilbidea aurkezteko. TXINTXARRI

diotenez, jaki horiek dastatzeko azken eguna urriaren 3a izango da, igandea.

## Bakailaoa oinarri

Jardueraren izenak adierazten duen moduan, bakailaoa da protagonista nagusia. Taberna bakoitzak bere kasa prestatu

du: Arkupekoek ajoarriero erara egin dute; frijitu egin dute Avenidakoek; Escalerillakoek eta Tiburtzio Artizarrek, konfitatu; eta Jalgikoek papurtu egin dute, beste testura bat emanez. Pintxoek are zapore eta kolore gehiago izan dezaten, beste makina bat osagai erabili

dituzte bost tabernek. Horietako ugari aski ezagunak dira: piper gorria eta berdea, tipula, patata, baratxuria, gatza, olio, ganbak, alberjina, ogia... Baten batek, ordea, ukitu exotikoa eman dio prestatu duen pintxoari: mango purea eta merken izeneko bizigarri txiletarra erabili ditu

Avenida tabernak, esate baterako.

Parte hartzaileek pozarren aurkeztu dute ekitaldia, eta uste dute harrera oso ona izango duela herrian. Bezeroen iritzia entzuteko irrikaz daude. Datorren urtean bigarren antolatze asmoa azaldu dute, eta espero dute herriko ostalari gehiagok bat egitea jarduerarekin.

## Gipuzkoako txapelketa

Arestian esan bezala, pintxoan ibilbide horretan, Lasarte-Oriakoek ez ezik, Gipuzkoako beste hamar hiri eta herritako ostalari ugari parte hartzen ari dira: Irun, Ezkio, Usurbil, Zarautz Trintxerpe, Donostia, Errenteria, Hondarribia, Pasai Donibane eta Pasai San Pedrokoak dira.

Ekitaldi gastronomiko hori bukatu eta bi egunera, urriaren 5ean, asteartez, Bakailao Pintxoan Gipuzkoako VII. Txapelketa jokatu dute Pasai Donibane Kulturgunean. Lehiaketa horretan parte hartuko duen ala ez taberna bakoitzak erabakiko du, eta, gaur-gaurkoz behintzat, gure herrikoek ez dute haien pintxoak aurkezteko asmorik. Lastima, prestatu dituzten jakiek zer itxura duten ikusita, epaimahaiko kideak adurra zintzilik dutela geratuko lireratek eta.

## BAKAILAO IBILBIDEAN PARTE HARTZEN ARI DIREN TABERNA GUZTIAK ERDIGUNEAN DAUDE

## Dastatu beharreko bost gutizia



### Bakailao ajoarriero erara, ganbekin

Horixe da herritarrek Arkupe tabernan (Largoenea kalea, 1) dastatu ahalko duten pintxoak. Sukaldariari errezeta eskatzeko moduko jakia da, inolako zalantzarik gabe.



### Bakailao frijitua, piperrada tropikalarekin

Avenida tabernaren (Hipodromo Etorbidea 2) proposamena da. Frijitutako bakailaoa piperrada tropikalarekin lagundu dute: mango purea eta merken izeneko espezia daramatza.



### Bakailao txigorkia, tipula konfitatuarekin eta arrautz gorringoarekin

Escalerilla tabernak (Geltoki kalea, 11) osagai horiek erabili ditu pintxoak egiteko, eta piper berdea ere bai. Mokadu batean baino, patxadaz jatekoa da.



### Bakailao eta patata papurtua, tipula konfitatuarekin eta piperrekin

Jalgi kafe antzokian (Geltoki kalea, 4) sortu duten pintxoak da hori. Osagai sorta hori (baratxuria eta gatza ahaztu gabe) ogi xerra baten gainean aurkeztu dute.



### Bakailao konfitatua, alberjiniarekin eta piperrekin

Adurra jariatzen hasteko moduko pintxoak prestatu dute Tiburtzio Artizar tabernako (Kale Nagusia, 12) lagunek. Kontatu dute olio nafar batekin busti dituztela gainontzeko osagaiak.



## 'Historias de cine' erakusketa ondu du Miguel Angel Oribek

Donostiako Keler espazioan ikus daitezke artistaren 26 collageak; azken eguna hilaren 30a izango da, osteguna

### Txintxarri

Iazko udaberriko konfinamendua artelan berriak sortzeko baliatu zuen Miguel Angel Oribek eskultoreak. Horietako batean zinema, Donostiako Zinemaldia eta artea uztartu zituen, eta 26 collage egin: arte diziplina horretan maisulantzat hartzen diren pelikula klasiko ugari eta haiei buruz hitz egin duten egunkari birziklatuak uztartu ditu. *Historias de cine* izena jarri dio. Keler espazioan ari da horiek erakusten, Donostian, hilaren 30era arte (osteguna).

Collageak egiteko irudiak egunkari, aldizkari eta bestelako argitalpenetatik hartu ditu Oribek; moztu eta itsatsi egin ditu. Arkatzak, errotulagailuak eta akuarelak erabili ditu txoriak, mendiak, hodeiak, bideak eta beste elementu batzuk margotzeko. Zinemaren



Miguel Angel Oribek eskultorea. ISAAC FARRE

munduan klasikotzat hartzen diren zenbait pelikulekin, eta eskultoreak berak gustuko dituenekin osatu ditu artelanak. Guztira, 26.

2020ko martxoan, COVID-19aren pandemia lehertu zenean,

gure etxeetan konfinatuta egotera behartu gintuzten agintariek. Tailerrera joan ezin zuenez obrak egitera, honakoa bururatu zitzaion Oriberri: luzemetraietako irudiak moztea eta itsastea, eta haiekin collageak egitea. "Dibertitzeko modua izan da niretzat lan horiek egitea, jolasa; asko gozatu dut", nabarmendu du artista lasarteoriatarak. "Entretentzeko egin nuen hori erakusketa bihurtu da, eta Donostiako 69. Zinemaldiak egitarauaren barruan sartu du".

Oribek, normalean, eskultura minimalistak egiten ditu, ez Donostiako Keler espazioan erakusten ari den collageen antzekoak. Azaldu duenez, "paisaia surrealista" sortu ditu; aurrez aipatutakoei euskal kulturako ezaugarriak gehitu dizkie, komikien estetika erabili du eta pertsonaiak "egoera oso barregarrietan" azaltzen dira.

*Tierra, Cinema Paradiso, Star Wars, The Godfather, The Big Lebowski, Blade Runner, Mujeres al borde de un ataque de nervios* eta beste zenbait film erabili ditu Oribek.



TXINTXARRI

## Erdi Arora bidaiatu du herriak

Iraganera jauzi egin, eta hiru egunez Erdi Aroko giroak hartu ditu Aralar eta Andatza plazak. Antolatzaileek espero baino egun hobea egin duenez, jende ugari gerturatu da artisauen 50 postuak kuxkuxeatzera edo tabernan indarrak berritzera, janez eta edanez. Bitartean, etxeko gazteenek Eulalia ipuin kontalariaren kontakizunak entzun dituzte.



Barruan daramazu kirol zaletasuna, onena emateko gaitasuna, ahaleginduz gozatzekoa. Eta barruan daramazu euskara ere, kirola barrutik bizitzeko.

Euskadi,  
auzolana





# "Ahoz ahokoa da publizitate onena"

ANGEL JUSTEL ZAPATARIA

Oinetakoekin harremana izateko asmorik ez bazuen ere, haien artean darama bizitzaren gehiena. Apirillean 25 urte bete ditu Sasoetan duen lantegiak, eta erretiratzeko aukera heldu bazaio ere, oraingoz, lanean jarraitzea nahiago du

## Maitane Aldanondo

Hilabete txarra izan ohi bada ere, oporretatik bueltan mahaiak lanez bete zaizkio Angel Justel-i (Leon, 1956). Lehen orduan jarri du hitzordua solasaldirako, lasaiago ibiliko delakoan, baina Gaztelekutik gertu duen lokalaren beira leihoen aurretik igarotzen den ia edonork agurtu du. Asko urtetako bezeroak ditu eta izena aipatuta itzultzen die agurra.

Oinetako pare baten orkoiak zabaltzen jartzen ari dela hasi da hizketan. Leonen (Gaztela eta Leon) jaio eta 8 urterekin Eibarra joan zen bizitzera Justel. Adin nagusitasunarekin batera, soldaduska egitera deitu zuten Madriler. Urte eta erdi egin zuen Itsas Armadan, umorez gogoratu bezala, itsasoko ura arrotza bazitzaion ere. Nahitaezko prestaketa militarra amaituta, zer egin aukeratu behar izan zuen. Ez zuen jaioterrira bueltatu nahi, eta hori beharrean, oraindik bizitoki duen Donostiara joan zen, bertan zuen anaiarekin lan egitera. Erabaki hark bere etorkizuna erabat baldintzatu zuen, ogibidea eta pasioa bilakatuko zena aurkitu baitzuen.

Zapatari ofizioa ikasi, eta egunez egun trebezia lantzen darama 45 urte, azken mende laurdena, Sasoetan. Erretiratzeko batere gogorik ez du, ezta asmorik ere, "bizpahiru urtean gutxienez". Egindako bidez eta ogibidez mintzatu zaio TXINTXARRI-ri. Baita, nahi gabe, zapatari sekreturen bat aitortu ere...

**"ANAIK BESTE ZERBAITETAN LAN EGIN IZAN BALU, HURA IZANGO NINTZATEKEEN"**

## Bizita erdia baino gehiago daramazu oinetako artean. Ogibidea zuk hautatu zenuen ala berak zu?

Inoiz ez zitzaidan burutik pasa ere egin! Ez nuen uste amak zapatariarenera bidaltzeaz gain, oinetakoekin harreman gehiago izango nuenik...

## Orduan, nolatan zapatari?

Soldaduska egin eta lizentziatu nindutenean, "eta orain zer?" pentsatu nuen. Urte eta erdi egon nintzen marinan, nahiz eta gertuen ikusia nuen ura iturrikoa zen, barrualdekoa izanda... Soldaduska aurretik Eibarren bizi nintzen eta ez nuen hara itzuli nahi. Donostian nuen anaiari deitu nion lanik bazen galdetzeko eta hara joateko esan zidan. 'El madrileño' ezizena zuen zapatari bat bazen Parte Zaharrean, Abuztuaren 31 kalean Roldan lantegia zuena, eta anaiak berarentzat lan egiten zuen.

## Beraz, honetan hasi zinen beste edozertan bezala...

Horixe bera. Anaiak beste zerbaitetan lan egin izan balu, hura izango nintzatekeen! Baina, egia esan, gustatu zitzaidan, ikasten joan nintzen...

## Non ikasi zenuen ogibidea?

Roldanen. Parte Zaharreko lokala txiki gelditu zitzaienez, Urdaneta kalean handiago bat hartu, eta tailerra hara eraman zuten. Bestea utzi zuten bilketa gune eta eskuz egin beharreko zenbait lanetarako: josi, itsatsi, piezatxoak... Anaiak han gelditu zen eta berarekin hasi nintzen lanean, salmahaiaz arduratzen.

**"OINEKIN IBILTZEN GAREN BITARTEAN, OINETAKOAK URRATZEN JARRAITUKO DUGU"**

Nagusiak beste dendarako norbait behar zuela eta hara bidali ninduen arte. Mostradorean jarraitu nuen, eta tarteka, ofizioa irakasten joan zen. Ogibidea berak irakatsi zidan, oso ondo, gainera; eta berarekin lanean aritu nintzen ia hogeituz urtez, kaleratu egin ninduen arte. Bidegabea izan zen, zenbait gastu murriztu nahi zituelako...

## Donostia utzi, eta 1996an Sasoetako lokal honetara etorri zinen. Zergatik aukeratu zenuen Lasarte-Oria?

Lagun lasarteoriatar batzuek lokal honi buruz hitz egin zidaten; mertzeria zen eta jabea uztekoan zen. Lekua ikusi nuen, egokia

iruditu zitzaidan, eta ekin nion. Hutsetik negozio bat aurrera atera behar izan nuen.

## Lehiakide asko al zenituen?

Une horretan beste lau zapatari zeuden. Michelinetik gertu zegoena jubilatuta egin zen, egia esan, oso zapatari ona zen. Hor atzean beste bat egon zen hilabete gutxi batzutan, hemendik gertu bat ireki eta itxi zuten ere... Orain hiru gabela uste dut. Lehia izan da Lasarte-Orian.

## Ahoz ahokoak halakoetan eragin handia izaten du, ezta?

Bai. Lehengoan neska bat etorri zen hiru bota parerekin, aurrekontua egin nion eta haien

bila etorri zenean esan zidan bezero batek aholkatuta zetorrela; eta pozik zegoenez, etortzen jarraituko duela. Ahoz ahokoa da publizitate onena, onerako eta txarrerako. Txapuza bat egiten baduzu, horregana ez joateko aholkatuko diete besteei. Inor ez da perfektua eta denok hanka sartzen dugu...

## Auzoa aldatu al da urteotan?

Bai. Etorri nintzenean, Gaztelekua dagoen tokian Nogues supermerkatua zegoen, gero beste marka batek hartu zuen... Azkenean, hura bota eta zulo izugarria zegoen. Hemen atzeko plazetan lokalak zeuden eta udalak egun batean eraistea erabaki zuen, beste toki bateko etxabeak eman zizkien. Pareko etxe hori ez zegoen, plaza zaharberritu dute... Orduantsu kendua zuten hilerria eta parke bat egin dute... Asko aldatu da.

## Eta zapatari lana?

Zola edo tapa batzuk jartzea, barne-zolak aldatzea... Hori ez da aldatu, ibiltzeko modua eta igatzekoa bera baitira. Aldatu dena teknologia da. Haurra nintzenean zapatariak eserita egoten ziren beti eta dena eskuz egiten zuten. Niri, jada, ez zidaten hala irakatsi. Ez naiz egun osoan esertzen, josteko bakarrik.



Sasoetan duen lantegiko mahaiak lanez bete zaizkio Justeli, udako oporralditik bueltan. Konpontzeko oinetakoak eta poltsak ez zaizkio falta. TXINTXARRI





Teknologia barneratu eta makinak hobetzen joan badira ere, zapatari lanak betikoa izaten jarraitzen du. TXINTXARRI

Daudenak hartu, eseri, eta jarraian egiten ditut denak. Hala ere, bada oraindik ideia hori buruan duenik: zapatariok eserita lan egiten dugula... Inondik ere ez! Guztiz kontrakoa. Josteko makina elektrikoak ere badaude, baina niretzat ez dira batere praktikokoak, betikoa nahiago dut.

Honek, gutxienez, 80 urte ditu, bigarren eskukoa erosi nuen eta oraindik funtzionatzen du.

**Zeiintzuk dira zeregin ohikoena?** Tapak eta zolak aldatzea. Itsatsi, josi, piezak jarri... Oporren bueltan belarria duten sandalietan goma aldaketa pila bat egiten ari naiz, kontua galdu dut! Poltsen kremaierak ere dezente aldatzen ditut metalikoak modan jarri zirenetik. Ia denek arazoak eragiten dituzte.

**Eskaeran alderik edo lan kargan beherakadarik nabaritu al duzu?**

Nire kasuan ez, behintzat. Txinatarren dendak zabaltzen hasi zirenean, ez bazen kalitatezko oinetako pare, dirua kostatu zitzaiena, egia da, jende gazteak bereziki, erabili eta bota egiten zuela. Ez zitzaidan batere logikoa iruditzen, nahiz eta diru gutxi kostatu. Hobe da ondo dauden hiruzpalau oinetako pare edukitzea, kaskar dauden hemezortzi baino. Gainera, gutxien erabiltzen dituzun horiek zuritu egingo dira edo zola pitzatu egingo zaie... Garai hartan lan karga pixka bat jaitsi zen, gero jendea konturatu zen hori ez zela bidea.

**Hortaz, jendea ohartu da merkea garesti ateratekeela.**

Bai. Niri ez zait lanik falta. Ez dut uste ogibide hau gainbehera doanik, oinekin ibiltzen garen bitartean, oinetakoak urratzen jarraituko dugu. Plastikozko oinetakoak saltzen jarraitzen dute, eta ez dira merkeak. Eta

oinetako garestiak badaude, 100 eurotik gorakoak izan ditut hemen... Normalean, egindako lanaren kalitateak eragiten du negozio bat ixtea.

**Eta zertan igartzen da? Nola jakin daiteke lan txukuna egin duela zapatariak?**

Denak eragiten du: itxurak, noski; eta materiala egokia izatea ere, iraun dezan. Material egokia ez badut erabiltzen, polita gera daiteke, baina erabiltzaileak berehala urratuko du. Beste batek material ona erabil dezake, baina amaiera ezegokia eman... Gustua ere izan behar da lan egiteko. Negargura ematen zuten tapak ikusi ditut. Gogoan ditut satinez forratutako oinetako fin batzuei jarritako iltzeak...

Nagusiak behin esan zidan: "Bezero bat badator askatu zaion tira bat josteko, zuk, josi, eta oinetakoa garbi izeaiozu. Horrela josita ikusteaz gain, inoiz baino garbiago ere ikusiko du". Behinola, konpondutako oinetako bat jaso, eta biharamunean zer egin nion galdetzeko bueltatu zen emakume bat. Beldurtu egin nintzen! Jakin nahi zuena zen garbitzeko zein produktu eman nion, besteari gauza bera eman nahi baitzion, itxura berdina izan zezan. "Sekretu profesionala" zela erantzun nion [kar, kar]. Estetika oso garrantzitsua da, zapatak itxuroso uzten ahalegintzen naiz. Kopiatuko dizkidaten sekretu asko kontatzen ari natzaizu!

**Kontrako norabidean ere gauza bera gertatzen al da? Alegia, oinetakoak ikusita erabiltzaileari buruzko gauzak jakin al ditzakezu?**

Noski. %99ak kanpoaldera zapaltzen dugu. Horrez gain, daramatzen oinetako en itxuragatik norbait nolakoa den jakin dezakezu. Batzuei berdina zaie zapatak garbi edo edonola eramatea. Lehen betuna orain baino askoz gehiago saltzen zen, denek txukun eraman nahi zituztelako. Egia da material batzuk garbitzen zailagoak direla, baina... Bezero batzuek takoidun oinetakoak mahai gainean utzi eta erori egiten dira, erabat higatuta daudelako. Kalean entzuten dut zenbait takoidun zapaten zarata... burdinarena, taparik ez dutelako.

**Lanetik kanpo ere arretra jartzen diezu...**

Lanbidearen ajea da. Emakume bat ikustean, lehenik, aurpegian jartzen dut arretra, eta ondoren, automatikoki daramatzen oinetakoei begiratzen diet, nola ibiltzen den... Gizonetan, berriz, takoietan. Erabat higatutakoekin dabilta batzuk...

**Egiten duzunarekiko zure grinaren seinale ere izango da. Zer da lanetik gustuko duzuna?**

Betetasuna. Hautsitako zapatak ekartzen dizkidate eta bukatuta ikusten ditudanean pentsatzen dut: gizon edo emakume honek oinetako hauek erabiltzen jarrai dezake, oso gustura zeramatzala zioen. Batzutan jarri berri ditudan tapak kendu egin ditut gustura ez nengoelako; ondo ikusi behar dut. Bezeroak oinetakoak ikusi, eta pozik dagoela ikusteak, erabiltzen jarraituko duela esateak... Asebate egiten nau ekarritakoa ondo konpontzeak eta jabeak pozik daudela ikusteak.

**Bizitza berri bat emango zenion oinetako pare askori, eta bera behin baino gehiagotan konponduko zenuen ere.**

Bai. Gustura daramatzatenez normalean gehiagotan ekartzen dituzte, asko erabiltzen dituztelako. Ondoko portalean bizi den gizon batek badu oinetako pare bat, 20 urte ez baditu... Hamaika aldiz konpondu dizkiot, baina horren gustura erabiltzen ditu ez dituela oinetatik kentzen. Mokasinak dira, oso oinetako onak. Horregatik diot hobe dela diru pixka bat gastatzea: min gutxiago egingo dizute, edo batere ez,

**"HOBE DA ONDO DAUDEN HIRUZPALAU PARE EDUKITZEA, KASKAR DAUDEN HEMEZORTZI BAINO"**

**"ASEBETE EGITEN NAU EKARRITAKOA ONDO KONPONTZEAK ETA JABEAK POZIK DAUDELA IKUSTEAK"**

**"HARRITUTA NAGO: EGUNERO AURPEGI BERRIAK IKUSTEN DITUT, MUSUKOAREKIN BADA ERE"**

gehiago iraungo dute, eta dirua aurreztuko duzu.

**Urtetako bezeroak dituzu, beraz. Inguruak al dira?**

Bezeroak auzokoak dira, baina baita herriko beste txoko batzuetakoak ere. Oriatik, La Esperanzatik... etortzen dira. Donostiatik espresuki datozenak ere badaude edo topoan egin ditudan bezeroak. Gehienak ezagunak dira, baina harrituta nago: egunero aurpegi berriak ikusten ditut, musukoarekin bada ere... Andatza plazan azoka jarri dutenetik auzotik aspaldi ibili ez den jendeak denda ikusi du; ez zekiten hemen nengoetik. **Erretiroa hartu behar zenuen abenduaren 31n, baina jarraitzea erabaki duzu.**

Gizarte Segurantzak jarraitzeko aukera eman zidan eta egingo dudala uste dut. Datorren hilabetean gestorearengana joango naiz eta ikusiko dugu; baina bizpahiru urte gehiagoz jarraituko dut. Emaztea gazteagoa da eta berak oraindik lan egin behar du urte batzuek.

**Ez zaizu lana falta eta gustura zaude...** Batzuetan kosta egiten zait; goizean ez, baina bazkalondoren... Kalera ateratzen naizen arte, topoa hartu eta hemen nagoenean, berdina zait. Ahalegin fisiko handiko lana balitz... Osasuntsu nago, ez dut sendagairik hartzen, eta ondo sentitzen naiz. Beraz, hiru bat urtez jarraituko dut, hortik pasako denik ez dut uste.



# Ezin denboraldia garaipenarekin hasi

Ostadar Saskibaloia ataleko Kadete Errendimendu taldeak Innova Hertz Klinika ISBren aurka eman dio hasiera 2021-2022 denboraldiari. Azpeitiarrek egindako hirugarren laurdena erabakigarria izan da azken emaitzan, 43-56 irabazi dute partida

## Txintxarri

Ia urtebete lehiatu gabe egon ostean, Ostadar Saskibaloia ataleko Kadete Errendimendu taldea Maialen Chourraut kiroldegian jokatu zuten. Jonatan Reinok zuzentzen duen taldeak Azpeitiko Innova Hertz Klinika ISB taldea izan zuen arerio.

Gogotsu atera ziren talde urdin-beltzeko jokalaria. "Gozatzeko gogoia zuten, lehiatzeko", adierazi du prestatzaileak. Garaipena, ordea, aurkariek erdietsi zuten, 43-56.

Partidako lehen zatia parekatua izan zen. Bi taldeen erasoak eta saskiratzeak txandakatu ziren. Alabaina, azpeitiarrek zortzi puntu jarraian egin, eta aurre hartu zuten lehen laurdeneko azken zatian, 9-16.

Ostadarrek kadeteak ederki borrokatu ziren markagailuari buelta emateko eta bigarren laurdeneko partzialean puntu batengatik irabazi zuten.



Kadete Errendimenduko taldeak ezin izan zuten Innova Hertz Klinika garaitu. TXINTXARRI

Bigarren zatiko lehen minutuetan egon zen partidako gakoa. Arerioak gogor eraso zuten eta zortzi puntu jarraian egin zituen. Ostadarrek, berriz, ez zuten saskiaren azpian zortzerik izan. Ondorioz, partzialean hamar puntu azpitik geratu zen talde

urdin-beltza, 4-14. Horrek tantokopuru orokorrean ere isla izan zuen, 31-47 aurreratu zen Innova Hertz Klinika.

Hala ere, Jonatan Reinoren gazteek ez zuten amore eman eta azken laurdena ederki borrokatu zuten. Kadeteek aurkaria

gelditzeko falta pertsonal ugari egin arren, azpeitiarrek ez zuten personaleko marratik saskiratzeak egiten asmatu. Horri esker, azken laurdenean garaile izan zen Ostadar, 12-9.

## Lana egiteko

Kadete Errendimendu taldearen prestatzaile Jonatan Reino pozarren dago taldeak lehen jardunaldi horretan egindako lanarekin. "Saskiratzeak lortu genituen eta puntuazioa ere altua izan da. Taldeko lana ere ikusi da", onartu du.

Hala ere, lan asko egiteko dagoela ere aitortu du entrenatzaileak: "Oraindik ez gaude prest. Talde polita dugun arren, heldugabe dago. Alor asko sendotu behar ditugu".

Taldearen osaera da bere esanetan, egoera horren arrazoi nagusia. Izan ere, talde erdia berri berritu baitute aurretan. "Adinarengatik urtero talde erdia aldatzen da. Bigarren urteko jokalaria junior mailara igotzen dira eta gurean infantilak hartzen ditugu," azaldu du Reinok.

Azken horientzat, gainera, maila aldaketa handia dela ere nabarmendu du: "Infantil mailatik kadete mailarako jauzia handia izan ohi da. Aurretan, gainera, jauzi hori handiagoa da. Entrenamendu eta lehiaketarik gabe egon dira. Beraz, gogor egin behar dugu lan jokalaria berriak taldearen

lan egitera eta lehiaketa mailara ohitzeko".

Horregatik, Kadete Errendimenduko prestatzaileak ez du helburu zehatzik denboraldirako. "Irakatsi, taldea osatu, jokoaren hainbat alor hobetu eta, batez ere, jokalariek ilusioa berreskuratzea dira xedeak. Lehiaketa aurrera joan ahala, arerioen maila ikusi, eta horren arabera, erabakiko dugu zer egin".

Horrez gain, aurretan denboraldi 'normala' izatea espero du entrenatzaileak: "Normaltasuna urrun egon arren, entrenatu, lehiatu eta jokalariek disfrutatu ahal izatea da gure esperantza".

Hurrengo arerioa BKL Loinatz izango da. Beasainen dute hitzordua, irailaren 25ean.

## Lagunartekoak

Egun horretan bertan, saileko beste talde batek hasiko du denboraldia, Junior Errendimendu taldeak.

Erreterian Oiarso SKTren aurka izango dute ikasturteko lehen norgehiagoka talde urdin-beltzeko kideek.

Partida prestatzeko Bera Bera talderen aurka neurtzea izan zuten. Endika Marrahik zuzentzen duen taldeak 51-66 irabazi zuten.

Gainerako taldeek denboraldi-aurrean jarraitzen dute eta hainbat lagunarteko jokatu zituzten irailaren 18an eta 19an.

# Aitor Manso bigarren izan da Andatzatik Aiara igoeran

Lasarte-Oriako gidari gaztea 7. mailako garaile ere izan da. Joseba Iraolak lortu du garaipena

## Txintxarri

Errepide bustiari aurre egin behar izan zioten irailaren 18an Andatzatik Aiara igoeran parte hartu zuten ibilgailuek. Joseba Iraolak irabazi zuen proba nagusitasunez, marka berria ezarri. Bigarren postua eskuratzeko, berriz, Aitor Manso herritarraren eta Arkaitz Ordoki nafarraren arteko borroka izan zen. Ehuneko gutxigatik Manso igo zen podium nagusiko bigarren mailara. Horrez gain, 7. mailako lehen saria ere eskuratu zuen herritarrak.

50 parte-hartzaileek bi entrenamendu saio eta bi lasterketa egin behar zituzten.

Aurreikuspenak baieztatuz Joseba Iraolak denborarik onenak egin zituen gainerako ibilgailuetatik urrun. Azken igoeran, gainera, 2020an berak ezarritako marka gaingitu zuen, 01.42,511 egin ostean.

## Marka ontzen

Mansok, berriz, errepidearen egoera aztertu zuen lehen entrenamenduan eta seigarren denborarik onena egin zuen, 02.07,889. "Euria egin zuen



Aitor Manso (ezkerreko lehena), Andatzatik Aiara igoerako podiumean. UROLA KOSTAKO HITZA

goizean eta errepidearen egoera ikusi nahi nuen", adierazi du herriko gidariak.

Bigarren saikeran ibilgailuaren motorrari zukua atera, eta denbora hobetu zuen. Bi minutu eta 997 ehuneko behar izan zituen 3.590 metroko ibilbidea egiteko. Horrek bigarren postua jarri zuen.

Igoera kronometratuetan ere marka ondu zuen herritarrak. Azkeneko saioan, gainera, ezustekoa izan zen. 01.57,845 egin zuen Mansok eta arerioen denboren zain geratu zen. Joseba Iraola garaiezina zela bazekien, baina espero ez zuen arerio bat aurkitu zuen, Arkaitz Ordoki. Nafarrak igoera ederra egin

zuen eta herriko gidariaren antzera 1.57an geratu zuen kronoa. Ehunekoek erabaki zuten azken sailkapena.

Manso 543 ehuneko azkarragoa izan zen eta, horri esker, sailkapen orokorrean eta eserleku bakarrek ibilgailuen artean bigarren izan zen. 7. mailan, berriz, garaile izan zen.

Pozik dago Manso egindako lanarekin: "Gainerako parte-hartzaileek urteak daramatate mailan lehian, batzuek Espainiako Txapelketan ere izan dira; nik bost lasterketa bakarrik egin ditut. Eta hurrengo hitzorduarentzat motibatua nago".

Urrakiko igoera eta Sollubeko igoera dira txapelketa amaitzeko geratzen diren probak. Horietan puntuak lortuz gero, Gipuzkoako Txapelketa eskura du herritarrak; Euskadikoan, berriz, bigarren postua du helburu.



# Aukerak izan arren, ezin berdinketa hautsi

Ostadar SKTren Emakumezkoen Erregional Ohorezkoak 2021-2022 denboraldiko lehen partidana bana berdindu du Tolosaren aurka. Denboraldi aurrean entrenatzaile aldaketa izan du taldeak. Egun Leire Garcia jokalaria ohia da taldeko buru

## Txintxarri

Hilabeteko prestaketaren ostean, Ostadar SKTren Emakumezkoen Erregional Ohorezko Mailako taldeak denboraldiko lehen jardunaldia jokatu zuen Michelin Kirol Gunean.

Berrikuntza nagusi bat izan du taldeak denboraldi-aurrean, entrenatzaile aldaketa. Leire Garciak Alberto Callaaren lekua hartu du.

Taldearen argi-ilunak ongi ezagutzen ditu Garciak. Taldeko jokalaria ohia da eta Callaaren laguntzaile izan da azken denboraldietan.

Hori dela eta, ez zaio zail egin taldera moldatzea, ezta denboraldiko helburua finkatzea ere: "Argi dut talde honek kalitatea eta indarra duela. Besterik gabe denok batera arraun egitea eta ikastea da gure helburu nagusia. Eta futbolaz eta talde giroaz disfrutatzeaz gain, zelatik kanpo dugun konplizitatea zelai barruan ere islatzea nahi dut".

Hori buruan egin du lan Garciak denboraldi-aurreko saioetan, baita jokaturako bi lagunartekoetan ere. Euskal Ligako Anaitasuna eta Gorengo Mailako Orioko taldeen aurka neurtu ditu indarrak: "Lehena galdu eta bigarrena irabazi arren, bi partidetatik ikasitako asko balio izan digu ligako lehen neurketari begira. Batez ere bigarren norgehiagokarekin, konfiantza asko irabazi dugulako".

## Puntu bat

Aipatu ligako lehen jardunaldian, Tolosa izan zuen aurrez aurre Ostadar SKTk eta bana berdindu zuten. Partidako lehen minutuetan urduri zeuden Ostadarreko jokalaria. Segituan ulertu zuten ordea, zertarako zeuden zelaian. "Gure helburu nagusia futboleko jokatzeko zen, atzetik baloia jokatzen hasia eta urduritasunak alde batera



Ostadar SKTk Tolosa garaitzeko aukera ugari izan zituen partidaren. TXINTXARRI

uztita, hori ondo lortu genuen", adierazi du Garciak.

Jokalariek elkarren artean ondo ulertu zuten eta horrek emaitzak izan zituen. Korner batean lortu zuten urdin-beltzek markagailuan aurreratzea.

Ostean, Tolosak erasoari ekin zion eta Ostadarreko jokalariek ondo eutsi zioten, "defentsak lanak ondo bete zituzten". Falta batean, ordea, berdinketako gola egin zuten tolosarrek. "Izan zuten aukera garbienaz baliatu ziren", nabarmendu du Ostadarreko entrenatzaileak.

Atsedenaldira iritsi baino lehen aukera gehiago izan zituen Erregional Ohorezkoak aurretik jartzeko, baina ez zen posible izan.

Bigarren zatian, Tolosak presioa areagotu zuen garaipenaren bila. Ostadarrek, berriz, defentsak lan handia egin eta bukaerara arte emaitzari eustea lortu zuen.

## Motibazioa

Leire Garcia entrenatzaileak partidaren irakurketa ona egin du: "Irabazteko aukerak izan genituen. Emaitzarekin eta jokalariek izan zuten jarrerarekin oso pozik gelditu nintzen".

Horrez gain, ligara begira jokalaria motibatua ikusten dituela nabarmendu du: "Gogo

eta ilusio handia eta jarrera bikainarekin daude".

Horiek Zumaiako KTren aurkako partidaren isla izatea espero du taldeko prestatzaileak: "Zumaiako taldearekin beti izan dugu lehia. Aurreko urteetan berdinketa dexente izan dira. Oraingoan hiru puntuak Zumaiatik Lasartera ekartzea espero dugu!".

## Lehen garaipenak

Ligan lehian dauden gainerako herriko futbol taldeen emaitzak lau garaipen, berdinketa bat eta lau porrot izan dira.

Ostadar SKTren Gorengo Mailako taldeak denboraldiko bigarren garaipena eskuratu zuen. Getariako KETAren aurka, 1-6 gailendu zen.

Erregional I. Mailako eta ohorezko mailako bi taldeek, jubenil zein kadeteek, ederki eman zioten hasiera ligari. Atotxa River, Beasain eta Ordizia garaitu zituzten, hurrenez hurren.

Texas Lasartera elkarteko kadeteek bana berdindu zuten Vasconian aurkako norgehiagokan.

Jardunaldiko ifrentzua, berriz, Ostadar SKTren jubenil eta kadete mailako taldeek bizi izan zuten. Zarautz, Internacional, Antigua-Luberri eta Oriokoren aurka galdu zuten.

## Lasarte-Oria Bai! Krosa bertan behera utzi du Ostadar SKTk

Pandemiari aurre egiteko lasterketei ezarritako neurriak eta 25. urteurreneko ospakizunak dira arrazoiak

## Txintxarri

Ostadar SKTk jakinarazi du aurtur ere urriko azken igandean Lasarte-Oriako kaleak ez direla adin guztietako korrikalariz beteko. Lasarte-Oria Bai! Krosa eta Kros Festa ez dira antolatuko. Ostadar SKTk kideek bi arrazoi nagusi aipatu dituzte erabakia azaltzerakoan.

Garrantzitsuen 25. urteurreneko ospakizunak ezin aurrera eramatea da. "Lasterketak merezi duen ospakizun festa antolatzeak murrizketak izango ditugu, eta ez soilik kirol arloan, baita krosa bukatu ondoren antolatu nahi ditugun ekitaldietan ere", azaldu dute.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzak orain arte jokatu diren lasterketetan jarritako baldintzak azpimarratzen dituzte. "Lasterketak antolatzea berez konplexua bada, jartzen dituzten baldintza gehigarriekin are konplexuagoa da. Eta momentu honetan gure lan-taldea ez dago baldintza horiek beteko dituela ziurtatzeko moduan", adierazi dute.

## Konpromisorik ezin hartu

Erabakia ongi hausnartu ostean, hartu dutela jakitera eman dute



2019ko irteerako irudia. TXINTXARRI

croseko antolatzaileek: "Kontsultak egin ditugu, eta inor ez dago urrian izango ditugun baldintza zehatzak aurreratzeko moduan; baldintzak zorrotz direla da dakigun bakarra. Egoera horren aurrean, onena Kros Herrikoia eta Korrika Festa 2022ra atzeratzea dela erabaki dugu".

Azkenik, bizi dugun egoeraren bilakaera ikusita 2022. urtean antolatze konpromisoa hartu ezin dutela adierazi dute, baita desira bat ere. "Esperantza izaten denez galtzen azkena, 2022ko urriaren 30ean herritar eta bisitarien batera Lasarte-Oria koloretako zapatilekin alaitzea espero eta desio dugu", aipatu dute.

## Intzako pilotariak Ezker Hormako Txapelketa hasi dute

3. mailako Senior bikoteak EPLE garaitu du lehen jardunaldian; kadetei garaipenak ihes egin die

## Txintxarri

Intza Pilota Elkarteko kideek Ezker Hormako Txapelketako lehen partidak jokatu zituzten irailaren 17an. Herriko taldeak aurkeztutako hiru bikoteetatik, 3. mailako Seniorrak bakarrik lortu zuten garaipena.

EPLEren aurka estreinatu zuen senior bikoteak 2021-2022 denboraldia, Erreterian. Jon Pello Artetxeri eta Mikel Elolari partidaren sartzeko kosta zitzairen. Tantoak egin ahala ordea, jokoaren erritmoa ezarri eta 16-22 nagusitu ziren.

Beñat Olazabal eta Jokin Lizaso kadete mailako bikoteak, berriz, garaipena izan zuen eskura. Behar Zanako pilotarien aurka neurtu zituzten indarrak. Partida berdindu izan arren, "detalle txikiak" erabaki zuten irabazlea. Behar Zana 22-20 gailendu zen.

Eta bigarren mailako jubenilen norgehiagokan Aretxabaleta izan zuen nagusi, 22-7. Haritza Diaz de Guereñuk eta Pedro Elosegui ezin izan zieten Aretxabaletako atzelariaren erasoari aurre egin.

Irailaren 25ean, guztiek etxean jokatuko dute bigarren jardunaldia.



# Hondarribiak ezin izan du Tolosaldea garaitu

Intza Fernandez herritarra kide duen traineruak bigarren postua eskuratu du Euskotren Ligako sailkatze estropadetan. Liga nagusiari agur esan eta ETE ligan lehiatuko da Hondarribia Bertako Igogailuak hurrengo denboraldian

## Txintxarri

Hondarribia Bertako Igogailuak, Tolosaldea, Deusto Tecuni Bilbao eta Cabo Da Cruz traineruek Euskotren Ligarako postu bat izan zuten jokoan, irailaren 18an eta 19an. Hondarribia Bertako Igogailuak-ek laugarren aldiz egin dio aurre erronkari. Alabaina, Tolosaldeak lortu du saria. Kontxako Banderan indartsu zegoela erakutsi zuen eta sailkatze probetan nagusi izan da.

Bermeoko erlojupekoan egon zen asteburuko gakoa. Intza Fernandez herritarra tostan zuela Hondarribia Bertako Igogailuak izan zen lehena itsasoratzen. Jarraian, Cabo da Cruz, Tolosaldea eta Deusto atera ziren, hurrenez hurren.

Hondarribiak zabiogan denbora ona egin zuen, 5.22, eta Tolosaldeako eskifaiak bakarrik hobetu zuen, 5.19. Bigarren itzulian arazoak izan zituen ordea *Ama Guadalupekoak*, eta Tolosaldea gailendu zen 11.38,75:



Intza Fernandez (erdian), Portugaleteko proban lehiatzen. EUSKOTREN LIGA / A. ARRIZABALAGA

hamazazpi segundo gehiago behar izan zuten berdeek.

## Errenta handia

Errenta horri aurre egin behar izan zioten Intza Fernandezek eta Hondarribiako taldekideek Portugaleteko uretan.

Saiatu arren, ezin izan zuten Tolosaldea garaitu. Zabiogan Tolosako taldeak hiru segundo atera zizkion Hondarribiari eta

abantaila hori mantendu zuen helmugara arte; 10.33,38ko denbora egin zuten.

Bi saioetako puntuak batuta, *Ama Guadalupekoa* bigarren izan da. Ondorioz, Intza Fernandez herritarrak eta bere taldekideek ezin izan diote mailari eutsi eta Emakumeen Traineru Elkarte (ETE) ligan lehiatuko da Hondarribia Bertako Igogailuak hurrengo denboraldian.



OSTADAR SKT

## Porra sariak, irabazleen esku

Espainiako Itzuliko porra eta porra nagusiko sariak banatu ditu Ostadar SKTk, Patxi Larrañaga harategian. Sari nagusia, 1.600 euro, Traperua txartelak irabazi du. Espainiako itzuliko lehen bi postuak, berriz, Otaegi eta Helena parte-hartzaileek eskuratu dituzte, hurrenez hurren. Lehenak 400 euro jaso ditu, eta bigarrenak, berrehun euro. Zozkatutako urdaiazpikoak ere hartu dituzte zortekoek. Patxi Larrañaga harategia puntu gehien lortu dituen establezimendua izan da eta harategiak ere bertan jasotako txartel onena saritu du. Saski berezia Nanok eraman du.

## Arzallus, hirugarren

VII. Flysch Beltza itsas zeharkaldia jokatu zen irailaren 18an, Mutrikutik Debara. Buruntzaldea IKTKo Manu Santos eta Igor Amantegi zein Garikoitz Lopetegui eta Joane Arzallus herritarrak lehiatu ziren bertan. Arzallus izan zen helmugaratzen lehena. 44.01 denborarekin hirugarren sailkatu zen. Lopetegik 45.36 behar izan zituen; Amantegik, 51.51; eta Santosek, berriz, 01.07.15.



BURUNTZALDEA IKT

## Euskal Ligan lehiatuko da Ostadarreko senior taldea

Jubenil eta kadete mailako taldeak ere osatu dituzte urdin-beltzek. Urrian hasiko dute denboraldia

## Txintxarri

Duela bi denboraldi martxan jarri zen Ostadar Boleibola sailak atal berria hasiko du urrian. Senior taldeak Euskal Ligako bigarren mailan jokatu du eta horretaz gain, jubenil eta kadete mailako taldeak ere izango ditu lehiatzen Gipuzkoako txapelketan.

Ostadar Boleibola atalak irailaren 6an hasi zituen entrenamendu saioak. Berrikuntza ugari izango dituen denboraldia prestatzen ari dira urdin-beltzak.

Lehen nobedadea talde kopurua da. Talde bakarra izatetik hiru izatera igaro da boleibol saila.

Ostadarrek udan egindako deialdia arrakastatsua izan da taldearen harrobia eratuko duten bi talde sortu ahal izan ditu: jubenil eta kadete mailako taldeak.

Asier Acuriola entrenatzaileak azaldu duenez, berri pozgarria da eta egun hiru taldetan banatzen diren 37 jokalariek osatzen dute atala.

Ondorioz, senior taldeak Euskal Ligako bigarren mailara jauzia



Ostadar Boleibola saileko senior taldea, iazko denboraldiko irudian. TXINTXARRI

ematea erabaki dute ataleko arduradunek.

## Erronka berria

2020-2021 denboraldian, Gipuzkoako txapelketan

hirugarren postua eskuratu zuen taldeak eta orain lehiaketa berriari egin beharko dio aurre Ostadar Boleibola ataleko lehen taldeak."Erronka zaila eta polita dugu aurretik. Horri esker,

taldearen maila hobetzea espero dugu", aipatu du.

Acuriolak zuzentzen dituen jokalariek Nafarroa, Bizkaia eta Arabako zortzi talde izango dituzte aurrez aurre.

Euskal Ligako lehen partida Iruñean jokatu du Ostadar Boleibola ataleko seniorrak, urriaren 16an. Navarvoley taldearen aurka neurtuko ditu indarrak Berriozarko kiroldegian. Ondo bidean, martxoaren 20an Bizkaian amaituko du denboraldia. Orduan Gallartako Jatorkide izango da arerioa.

Harrobiko bi taldeak, berriz, Gipuzkoa mailan lehiatuko dira. Acuriolak aurreratu duenez, irekiera txapelketan parte hartuz emango diote hasiera denboraldiari urriaren 16ko asteburuan. Oraindik egutegia zehazteke dute.





# “Irakurri duzu?!”

**Zu ere harrituko zara, edo ez.  
Poztu, edo haserretu. Baina ziur  
baduzula interesa eta zeresana.  
Jakinmina eta irizpidea duzulako.  
Giroan zabiltzalako.**

**berria**

**zuk badakizulako**



## KOMIKIA



## ZORION AGURRA



**Iñaki**  
Untzagan bada ttakunkide bat, urtebete zaharragoa dena asteartez geroztik... Guk, elkarrekin kafetxo bat hartuz ospatu nahiko genuke zure urte berriaren hasiera... bazatoz?  
Mila kilo zorion, bollikau! Besarkada!



## Jaio da!

Eman jaiotzen berri  
TXINTXARRI-Ń.  
Deitu 943-37 14 48  
telefonora, bidali haurren izen-abizenak eta jaiotza data [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

## Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

## Internet

- [www.txintxarri.eus/zorionagurrak](http://www.txintxarri.eus/zorionagurrak)
- Zure erabiltzaileekin sartu/ Erabiltzaile ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan

argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

## Posta elektronikoa

- Mezua bidali [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.

## AZOKA TXIKIA

## ETXEBIZITZA

## ERRENTAN EMAN

Etxebizitza bateko logela alokatzen dut, areto amankomunak erabiltzeko eskubidearekin. Harremanetarako zenbakia: 605 70 57 89. Garajea alokatzen dut Torre parkean (Brigidatarren plazan). Harremanetarako zenbakia: 648 200 811.

## LANA

## ESKAINITZA

Herriko ile apaindegi eta estetika zentro batek manikura eta pedikura egiteko langile bat behar du. Harremanetarako zenbakia: 647 82 13 61.

## ESKARIA

Haur hezkuntzako ikasketak amaitu berri

ditut eta irailetik aurrera haurrak zaintzeko prest nago. Harremanetarako zenbakia: 616 26 11 96.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan.

Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest.

Harremanetarako zenbakia: 634 27 81 98. Ikasturte berri honetan haurrak zainduko nituzke, eskolara sartu aurretik. Harremanetarako zenbakia: 630 68 27 16.

## SALEROSKETA

## SALDU

Paseorako bi txirinda saltzen ditut, ehun eurotan biak. Harremanetarako zenbakia: 670 60 74 95.

Bizikletari lotzeko erremolke doble salgai. Interesik bazenu, deitu lasai. Inongo konpromisorik gabe probatu daitezke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurpilak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro. Harremanetarako zenbakia: 670 20 78 14, Amaia.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 24 ACHA-ORBEA  
LARUNBATA, 25 LASA  
IGANDEA, 26 LASA  
ASTELEHENA, 27 URBISTONDO  
ASTEARTEA, 28 GANDARIAS-URIBE  
AZTEAZKENA, 29 DE ORUE  
OSTEGUNA, 30 DE MIGUEL

**EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943-55 17 93

**URTE OSOKO GUARDIAK APP-A** eskuragarri app store edo android marketen

Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) orrialdean eskuragarri.

## OHARRA

## Ezohiko batzarra deitu du La Esperanza bizilagunen elkarteak irailaren 26an

La Esperanza bizilagunen elkarteak ezohiko batzarra egingo du irailaren 26an, igandearekin, bere lokalean (Basaundi Bailara 8, behe). Aurreneko deialdia 10:00etan izango da, eta bigarrena, ordu erdi beranduago, 10:30ean. Gai zerrendan puntu bakarra jaso du: onartu berriak izan diren estatutuetako bi artikuluko zuzentzea.

## Beltzak RT errugbi eskolako ate irekien azken jardunaldia

Lasarte-Oriako gaztetxoei errugbia ezagutzeko aukera eman nahi die Beltzak RTk, eta horretarako, ate irekien jardunaldiak antolatu ditu. Azkena irailaren 24rako, ostiralarekin. 18:00etan hasiko da, eta 10 (2012an eta 2013an jaiotakoak), 12 (2010-2011) zein 14 urtez azpikoei (2008 eta 2009) zuzendutakoak izango dira. Harremanetarako: 666 32 10 59.

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

## Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

## Administrataria

Nerea Garziarena.

## Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

## Publizitateak

Iratzi Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maitane Rebe, Julen Basterra,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo  
eta Aizpea Amas.

**Banatzzaileak:** Igone Mendizabal,  
Olatz Bardaji, Lide Hidalgo, Uxue  
Odriozola, Julene Iraola, Egoitz  
Epelde, Sergio Hernandez, Ander  
Hazas eta Iñigo Garcia.

**Informatika zerbitzua**  
IZT Informatika.

## PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

## EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, SA

**Lege Gordailua:** SS-513/93  
**ISSN:** 1134-0053  
**Tirada:** 8.500 ale

## BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 24

### LASARTE-ORIA Mugikortasun Astea

Europako Mugikortasun Astearekin bat eginik, jarduera ugari antolatu dituzte Artelatz enpresak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean.

15:45etik 16:45era bizikleta martxa abiatuko da Okendo plazatik. Luzera ezberdinetako bi zirkuitu antolatu dituzte, eta ibilbidea osatu ostean, bizikletarekin egiteko jolasetan parte hartzeko aukera eskainiko dute: zinta lasterketak, trebetasun zirkuituak, jolas dibertigarriak, eta abar.

17:00etan aisialdiko jolasak hasiko dira. Kale Nagusia ohiko ibilgailuentzat itxi egingo dute, eta espazio hori erabiliko dute jolaserako; Tajamar-eko biribilgunetik Ola kalekoraino.

18:00etan Ostadar SKT taldeko ipar martxako lagunek erakustaldi bat egingo dute.

Herriko zenbait lekutan, 15:45etik, 18:00etara.

### AMASA-VILLABONA Kontzertua

Ildoa Asurmendi musikariak uztailan atzeratu behar izan zuen emanaldia eskainiko du. *Ilun eta abar* diskoa aurkeztuko die bertaraten diren ikus-entzuleei. Antolatzaileek jakinarazi dute eguraldi txarra eginez gero, Gurea antzokira lekualdatuko dela emanaldia.

Erreboteko plaza, 19:30.



**LASARTE-ORIA Bakailoaren I. Ibilbidea** Arkupe, Avenida, Escalerrilla, Jalgi eta Tiburtzio Artizar tabernek bat egin dute Bakailao Pintxoaren I. Ibilbidearekin. Arrain hori oinarri hartuta, mokadu bana prestatu dute, eta horiek dastatzeko aukera izango dute herritarrek. Urriaren 3an amaituko da egitasmoa, hortaz, ordura arte gerturatu ahal izango dira herritarrek jakiak dastatzera. Bakailo izango da protagonista nagusia, eta taberna bakoitzak osagai ezberdinak erabiliz prestatu dituzte.

Urriaren 3ra arte, Arkupe, Avenida, Escalerrilla, Jalgi eta Tiburtzio Artizarren.

## LARUNBATA 25

### LASARTE Aste Berdea

Aste Berdearen bigarren jardunaldia egingo dute. Oria ibaiertzean egon daitezkeen hondakinak jasotzeko asmoz, garbiketa herrikoia deitu dute antolatzaileek.

Zumaburu parkea, 09:30etik aurrera.

### ANDOAIN Kale ikuskizuna

Hika Teatroa taldeak *Gazte* izeneko kaleko dantza eta antzerki ikuskizuna

ekoitzi du, Oinkari Dantza taldearekin elkarlanean. Estetika eta lengoia propio baten bila jarraitzeko asmoz, ikuskizunak Euskal Dantza abiapuntu hartzen du abiapuntu, baina Dantza Garaikidea eta garaiko dantza modernoak eta gorputz mugimendua uztartuko ditu, ahotsari eta testuari ere tokia eginaz.

Goikoplaza frontoia, 19:00etan.

## IGANDEA 26

### AMASA-VILLABONA Antzerkia

Getari Etxegarai zuzendariaren eta

## ZINEMA

### USURBIL

Igandea: 15:45, 17:00, 18:15, 19:10, 20:30, 21:45.

### URBIL

### ¿Quién es quién?

Ostirala: 19:05.  
Larunbata: 19:05.  
Igandea: 19:05.

### After. Almas perdidas

Ostirala: 16:35.  
Larunbata: 16:35.  
Igandea: 16:35.

### Dune

Ostirala: 15:45, 17:00, 18:15, 19:10, 20:30, 21:45.  
Larunbata: 15:45, 17:00, 18:15, 19:10, 20:30, 21:45.

### Cry Macho

Ostirala: 17:05, 19:40, 22:15.  
Larunbata: 17:05, 19:40, 22:15.  
Igandea: 17:05, 19:40, 22:15.

### La Patrulla

**Canina: la película**  
Ostirala: 15:55.  
Larunbata: 15:55.  
Igandea: 15:55.

### Maligno

Ostirala: 22:30.  
Larunbata:

22:30.

Igandea: 22:30.

### Shang-Chi y la leyenda de los Diez Anillos

Ostirala: 15:55, 19:00, 22:05.  
Larunbata: 15:55, 19:00, 22:05.  
Igandea: 15:55, 19:00, 22:05.

### Ice Road

Ostirala: 21:35.  
Larunbata: 21:35.  
Igandea: 21:35.

### Maixabel

Ostirala: 16:25, 19:15, 22:20.  
Larunbata: 16:25,

19:15, 22:20..  
Igandea: 16:25, 19:15, 22:20.

### No respire 2

Ostirala: 17:30, 20:00, 22:40.  
Larunbata: 17:30, 20:00, 22:40.  
Igandea: 17:30, 20:00, 22:40.

### ANDOAIN

### BASTERO

### Maixabel

Ostirala: 19:30.  
Larunbata: 19:30, 22:00.  
Igandea: 19:30.

## ASTEARTEA 5

### LASARTE Plaza dantza

Laster hasiko da Plaza dantza egitasmoa. Lehen entsegu urriaren 5ean egingo dute, asteartez, Sasoeta ikastetxeko gimnasioan, 20:00etatik 21:30era. Parte hartu nahi duten lasarteoritarrek, 695 78 53 89 telefonora deitu behar dute, edo [kultura@ttakun.eus](mailto:kultura@ttakun.eus) helbide elektronikora idatzi. Antolatzaileek zehaztu dutenez, talde bat edo bi sortuko dituzte, parte hartzaile kopuruaren eta haiek duten esperientziaren arabera. Aurreko ikasturteetako batzuetan, esate baterako, hasiberriak asteartean entseatu zuten, eta aurrez arituak zirenak, asteazkenetan. Egitasmoan parte hartera deitu dituzte herritarrek.

Sasoeta ikastetxeko gimnasioan, 20:00etan.

## Irri, dantza eta kantu eginaz landuko dute heriotzaren gaia herriko haur, gazte eta familiekin

Pirritx, Porrotx eta Marimotots heriotzaren gaia lantzen ari dira *Amaren Intxaurrek* ikuskizunarekin, eta urriaren 2an, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur Etxeko oholza gainera ekarriko dute.

"Heriotza bizitzaren parte dela ulertzeko" asmoz landu eta sortu dute azken ikuskizuna, eta gai horren inguruko ezagutza zabaldu egin behar dela uste dute Lasarte-Oriako sudurgorriek: "Helburu argi bat du, heriotzaren

gaia haur, gazte zein haien familiekin lantzea. Gaiak tabua izaten jarraitzen du, nahiz eta denok ukitzen gaituen. Denok jaio eta hiltzen gara, bizitzarekin batera doa heriotza ere, eta modu naturalean sentitu, pentsatu eta barneratu beharko genuke".

Irriz, kantuz eta dantzaz betetako emanaldia izango dela azpimarratu dute: "Heriotzaz hitz egiteak ez du esan nahi modu triste batean egin behar denik; gure emanaldia alaitasunez betetako abentura bat

izango da". Hausnarketarako hitzordu ederra izango dute etxeko txikienek, umoretik eta une atsegina igaroz.


### Intxaurrendoa opari

Azken ikuskizunaren protagonista nagusietako bat da intxaurrendoa. Marimototsen ama Loreoren heriotzarekin landatu zuten, eta, orain, zuhaixkaren intxaurrek jaso eta jaten dituzten bitartean kontatzen dizkiete Loreorekin bizi eta ikasitakoak

haurrei. Gainera, emanaldia eskaintzen duten herri bakoitzari intxaurrendoa oparitzen ari dira, Euskal Herri osoan "baso magikoak" zabaldu eta bertako hildakoak oroitzeko. Lasarte-Oriari ere oparituko diote berea, eta iragarri duenez, Jalguneko lagunek jasoko dute.

### Harrera ona

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek Lasarte-Oriari eskainiko duten emanaldirako sarrera guztiak agortuta daude dagoeneko, eta hori eskertu dute pailazoek. Azaldu dute "oso maitatuak" sentitzen direla.



Ikuskizunaren kartela. KATXIPORRETA



# LASARTE-ORIA

## GREMIOEN GIDA

Arreta profesionalena, herrian bertan!

Herriko  
GIDA KOMERTZIALA  
sarean ikus dezakezu

[www.txintxarri.eus/gida](http://www.txintxarri.eus/gida)



Barne-Diseinua



Iturgintza



Igeltseritza

**SUGATE**  
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
  - AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5  
Lasarte-Oria  
Tel: 943-361 471  
[www.sugatecocinas.com](http://www.sugatecocinas.com)

**ILLARRETA**  
ITURGINTZA  
IGELTSEKITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

BULEGOA: Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria  
Tel. 606 686 615 eta 943-36 17 52.  
TAILERRA: Oialume bidea 24, Astigarraga  
[info@illarreta.com](mailto:info@illarreta.com)

ANTONIO ARREGUI, S.L. **AA** eraikuntza materialak  
!GAMMA

- ERAIKUNTZA MATERIALAK OROKORREAN
- ZERAMIKA
- SANITARIOAK
- KOMUNEKO KONPLEMENTUAK

[www.gamma.es](http://www.gamma.es)

<b>BILTEGI OROKORRA</b> Oria Etorbidea, 6 20160 Lasarte-Oria Tel: 943-36 64 73 <a href="mailto:aarreguisl@gmail.com">aarreguisl@gmail.com</a>	<b>ERAKUSKETA</b> Goikale, 2 20160 Lasarte-Oria Tel: 943-36 59 47 Faxa: 943-36 59 47
---	--

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra

- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40  
[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) - [www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)  
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria



Elektrizitatea



Kristaldegi eta leihoak

**ELECTRICIDAD ARREGUI**

- Material elektrikoak
  - Argiak
- Etxetresna elektrikoak
  - TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA  
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21  
600 85 75 86 [www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)  
[tienda.electricidadarregui.com](http://tienda.electricidadarregui.com)

**ANORGA TXIBI S.L.**  
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
  - Beira bikoitza
  - Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
  - Ispiluak
  - Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA  
943 37-17 33 • 610 45 93 45  
[www.cristaleriaanorgatxiki.com](http://www.cristaleriaanorgatxiki.com)

**ISU**

PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK

Pertsianak, motorizazioak, barandak, toldoak, armairuak, eltxo sareak eta gehiago...

Kale Nagusia, 46 behe. LASARTE-ORIA  
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala USURBIL

☎ 943-36 64 95  
✉ [ventanas\\_isu@hotmail.com](mailto:ventanas_isu@hotmail.com)

Gida honetan  
azaldu nahi  
baduzu jar  
zaitez gurekin  
harremanetan

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:  
943 37-14 48 (106) / 646 82 44 66 | [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)  
Hurrengo GREMIOEN GIDA urriaren 29an kaleratuko dugu